



BARREN

TOKIKOM

Isiltasuna lagun

Jose Cruz Igartua



Lorenzo Esnaola Larreategui

"Musillo"

2018ko otsailaren 20an hil zen, 96 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

***Bizitzari errotoa,
benetan den guzti horri lotua.
Barruak sua zuen zugan
eta itzalezinak ziruditen txinpartak.
Heriotzak gutxitan
laga izan ohi duen
goxotasuna sentitzeko oparia
eman diguzulako
eta senak zugan zuen indarra
iritsi zaigulako,
ez dugu inoiz amatatuko
ez zen argi horren dizdira ahaztuko.***

Etxeoak



Pablo Alvarez Arruabarrena

2018ko otsailaren 18an hil zen, 91 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Pilar Barturen Sasiain ahizpa

Arantza, erlijiosa klaratarra

2018ko otsailaren 16an hil zen, 94 urte zituela. Haren ahizpa klaratarrak eta bere familiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Txomin Ondarre Amuategui

2017ko otsailaren 27an hil zen, 87 urte zituela. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 24an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zuretik eskerrak.

***Betirako irauten duen doinu baten antzera,
gure bihotzetan jarraitzen duzu.***

Sendiak



Barren 25 urte

Dena ez da gozoa izan

Hamabost urte bete ziren martitzenean, 2003an, Espainiako Auzitegi Nazionalera iritsi berria zen Juan del Olmo epailearen aginduz, *Guardia Zibilak 'Euskaldunon Egunkaria' itxi zuenetik. Euskararen eta euskal kulturaren ikur nagusietako baten kontrako eraso izan zen, eta kolpe gogorra euskal komunitatea osatzen dugunotzat. Hala ulertu genuen BARRENen ere, eta tarte zabala eskaini genion auziari. Euskararen historian eta euskarazko kazetaritzaren historian ez ezik BARRENen historian ere marka utzi du 'Egunkaria'-k.*



Hamabost urte egin behar da atzera. 2003ko otsailaren 20an itxi eta zigilatu zuten *Euskaldunon Egunkaria*, eta otsailaren 28ko zenbakia, 436.a, itxierari eskaini zion BARRENek. *Denok gara Egunkaria* izan zen titular nagusia, erakutsiz geure egiten genuela euskal komunitatean nagusitu zen sentimendua. Sasoi hartan *Egunkaria*

riako langile ziren bi elgoibartari eman genien hitza erreportaje nagusian: Igor Sotari –publizitate arduraduna zen– eta Montse Arregiri –Kulturako erredaktorea–. Hala ere, zenbaki hartako beste atal askotara ere eraman genuen itxieraren gaia. Eta beste horrenbeste egin zuten orduko gure kolaboratzaileek ere. Gai horri tiraka idatzi zuten Iritzia ataleko zutabea Jokin Martinezek eta beste horrenbeste egin zuten Maite Uriartek, *Urruzunoren begi ezkutua* atalean. Elgoibarren, *Egunkaria*-ren aldeko batzordea ere osatu zen itxieraren ondorengo egunetan eta batzorde hark Kalegoen Plazan antolatu zuen elkartasun ekitaldiari ere tarte berezia eskaini genion.

Orduan hasi zen amesgaiztoak, baina, luze iraun zuen: 11 urte eta zazpi hilabete. 2009ko azaroaren 26an jakinarazi zuten abenduaren 15ean hasiko zutela *Egunkaria*-ren kontrako epaiketa Madrilan, eta abenduaren 4ko zenbakian, Martxelo Otamendi auzipetua, elkarritzetatu genuen. Auziaren bultzada politikoa nabarmendu zuen Otamendik, eta epaiketa inolako berme juridikorik gabe hasiko zela salatu. Urtebetera, apirilak 12 zituenean, Auzitegi Nazionalak absolbitu egin zituen Joan Mari Torrealдай, Iñaki Uriá, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta

Xabier Oleaga sumario nagusiko bost auzipetuek, euren kontrako frogarik ez zegoela ebatzita. Absolbitu egin zuten, beraz, *Egunkaria*, baina artean erabaki gabe zegoen auzi ekonomikoa. Zortzi auzipetu zeuden atal ekonomikoan, denak ere zigor eskaera handiekin, eta horietako bat zen Joan Mari Torrealдай, BARRENek 924ko zenbakian elkarritzetatu zuena.



Luze jo zuten epaiketak, harik eta 2014ko urriaren 14an, Gipuzkoako lurralde Auzitegiko 3. sekzioak itxi egin zuen *Egunkaria*-ko auzi ekonomikoa, Carmen Zubimendi Donostiako Zigor Epaitegiko epailearen erabakia berretsita, eta albistea jakin biharramunean elkarritzetatu genuen Joan Mari Torrealдай aste horretako alerako. *Egunkaria* auziaren azkena zen.





Untxiak, bitxiloreak eta pinaburuak

// Zenbat untxi bikote izango dugu urte amaieran, bikote batekin hasten badugu urtea, eta untxi bikote bakoitzak bi hilabetera untxi bikote berri bat sortzen badu?" Hala esaten du, gutxigora behera, Leonardo Pisano, Fibonacci, Erdi Aroko matematikari italiarrak enuntziatu-

tako problema ezagun batek. Jakina, gauzak gehiago zehaztu behar lirateke ondo ulertuko bada: untxi bikote bakoitza, ar eta eme banak osatua behar luke eta bikote berri bakoitza besteetatik isolatzen da jaiotze berehala. 1, 1, 2, 3, 5, 8, 13, 21, 34, 55, 89, 144 da hilabete bakoitzeko untxi bikote kopurua. Lehen bi zenbakiak emanda (1, 1), hurrengoia beti aurreko biei batura dela ikus daiteke: 1, 1, 1+1=2, 1+2=3, 2+3=5; 3+5=8. Patroi simple hau mila adibide desberdinetan

aurkitzen da naturan. Landareetan, bereziki. Baina ez, bakarrik. Lore askoren petalo kopurua (guztiak daudenean!) segidako zenbakiren batekin bat etorri ohi da. Pinaburu eta eguzkiloreetako hazien dispozioan, antzeman daitezken espiralen adar kopuruek ere segidako zenbakiekin bat egiten dute. Natura eta matematikaren arteko sakoneko erlazioren erakusgarri bat da. Azaltzen erraza ez dena. Eugene Wigner fisikariak "matematikaren arrazoiz kanpoko eraginkortasuna" deitu zuena.

"Lore askoren petalo kopurua segidako zenbakiren batekin (guztiak daudenean!) bat etorri ohi da"

 <p>ARGITARATZAILEA:</p> 	<p>Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR 943 744 112 Publizitatea: 943 743 704 barren.publi@elgoibarkoizarra.eus barren@elgoibarkoizarra.eus www.barren.eus</p> <p>BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskuiztak ataletan adierazita koen erantzukizunik. KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zaloea Amaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Ibon Serrano, Ana Alberdi, Eire Vila, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Paula Heras, Enetz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Sorluze, Arantza Etxeberria, Irati Agirreazaldegia, Jone Olaizola INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.885 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855</p>	<p>BABESLEA:</p>  <p>LAGUNTZAILEAK:</p>   <p>EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO</p> <p>KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA</p> <p>(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua</p>
---	---	---

BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► 'OROIMINA LORETAN. 30 URTE DESERRIAN'

Kaixo! Datorren asteko ostiralean, martxoaren 2an, ostiralean, Josu Lariz elgoibartarrari buruzko dokumentala ikusteko aukera izango dugu, Musika Eskolako auditoriumean, 19:30ean. Josuk 1984. urtean alde egin zuen Elgoibartik arrazoi politikoak zirela medio. GALen garaia ezagutu zuen Iparraldean, eta handik alde egitea erabaki zuen. Uruguai aldera joan eta han finkatu zuen bere bizitza, beti ere lege egoera irregularrean. Gorabehera asko izan zituen Uruguain, Espainiako Gobernuak Espainiaratu nahi izan baitzuen, beste errefuxiatu askorekin batera. Gaur ere han bizi da.

Josu kolektibo oso zabal bateko partaidea da. Ehunka izan dira arrazoi politikoak direla medio alde egin behar izan dutenak. Horietako 40 GALEk eta gerra zikinak hil zituen. Beste 382 Espainiaratuak izan dira munduko beste hainbeste estatuetatik. 120 sorterrira bueltatu dira. Baina badira beste 100 inguru etxera bueltatu ezinik munduan zehar barreraturik. Josu horietako bat da. Berak bere bizipenak eta hausnarketak kontutuko dizkigu eta memoriaz hitz egiten den momentu honetan ere ekarpen interresgarriak direlakoan gaude. Gonbidaturik zaude.

Sare Elgoibar

► MENDAROKO GABONETAKO JAIALDIAN ALDAKETAK

Ameikutz Musika Eskolako guraso batzordetik erantzuna eman nahi diogu duela aste batzuk publikatu zen kexa anonimoari. Bertan haurrek Olentzero eta Mari Domingiri eskutitzak ezin izan zizkietela eman aipatzen zen eta idatzi honen bidez jaialdiaren antolakuntzaren nondik norakoak azaldu nahi ditugu.

Olentzero eta Mari Domingiren jaialdiaren antolakuntza Ameikutz Musika Es-

kolako guraso batzordetik egiten da eta azken urteetan aldaketak egon dira jaialdiaren formatuan, ordutegian, lekuan, antolaketan... momentu bakoitzeko gurasoen irizpideen arabera, eta beti ere hobetzeko asmoarekin. Gaur egun gaudenok, duela pare bat urte berrikuntza batzuk egin nahi izan genituen, aipatu bezala beti ere hobetzeko asmotan. Jaialdia arratsalde-iluntzean egitea erabaki genuen aspaldiko usadioa jarraituz, eta aldaketa honekin giro goxoagoa eta jende gehiago batzea lortu dugula uste dugu. Ongietorria udaletxeko balkoian egiten hasi ginen baita ere, frontoian egin ordez. Gutunak emateak sortzen zituen arazoak tarteko (haurren urduritasunak, ilara luzeak, negarrak...), gutunak zakuetan jasotzea erabaki genuen. Megafoniatik honen berri ematen saiatu ginen, haur guztiek beraien gutuna eman zezaten. Beraz, banaka-banaka Olentzero eta Mari Domingirekin egoteko aukera ez dute, baina gutunak zakuetan entregatzeko aukera bai.

Hau argituta, azaldu nahi duguna da egindako aldaketak beti ere hobetzeko asmoz eginak direla eta norbaitek ideia berritzaile edota hobekuntzarik planteatu nahiko balu, gustura hartuko dugula proposamena.

Bide batez martxoaren 21ean 20:30ean, Ameikutz Musika Eskolan egongo den batzar orokorrera gonbidatu nahi zaituztegu. Bertan eskolaren berri emango zaizue gerturatzen zareten guttiori eta proposamenak jasotzeko beste aukera bat ere izango da.

Ameikutz Mendaroko Musika Eskola

► UDAL-AURREKONTUA ETA LANGABEZIA

Berriki onartu da udaletxean aurrekontua eta badirudi Elgoibarrek oso egoera ona duela, zorrik gabe eta inbertsiotarako 4.400.000 euro pasa dituelarik. Zenbaki honen berri jakitean

galdera bat datorkit burura: 4.400.000 euroko gastua egingo da herrian 2018an, eta hala, ere ez dago modurik langabezia murrizteko herrian? Zergatik gertatzen da hori? Gogoratu %10etik gorakoa dela langabezia tasa herrian, 551 pertsona.

Udalak enpresen esku uzten du lan hori, herriko langabetuak kontratatzerako behartzeko inolako baldintzarik gabe. Jakina, eztabaidagarria da hala egin behar duen ala ez. Enpresaren interesekoa da eskuak libre izatea nahi duena eta nahi duen moduan kontratatzeko eta aukeran lan esku merkeena bilatuko du beti. Baina, beste aldetik gizartearen onura dago, kasu honetan gure herrikoa. Muturrera kasua eramanez gero gerta daiteke beti enpresek nahiago izatea kanpoko langileak hartzea eta herrikoen langabezia handitzen joatea. Ez al da logikoa instituzioek nolabaiteko mugak ezartzea horri?

Umetan, munduko pobreentzat, limosna jasotzeko egunak izaten ziren. Geroago elizak berak esan zuen arraina eman beharrean, arraina harrapatzeko kanabera ematea hobe zela, hartara berriek lana eginez bere buruaren jabe izan zitezten. Baina, hara non 50 urte beranduago, bertako pobreentzat antolatutako behar den karitatea, maila handitan. Badakigu zenbat familia laguntzen den Elgoibarren elikadura bankutik? 175 familia. Caritasek berriz 125 familia lagundu behar izan du ekonomikoki. Honek ez al du zer pentsa ematen?

Mendi

Erretiratu eta pentsiodunek plazara eramán dute protesta



Elgoibarko erretiratu eta pentsiodunek protesta egin zuten joan zen barixakuan Elgoibarren, Kalegoen plazan. Duintasuna elkarrekin, Gipuzkoako pentsiodunen eta jubilatuen elkarrekin deitu zuten mobilizatzerara. Espainiako Gobernuak onartu duen pentsioen %0,25eko igoera miseria dela salatzen zuten, eta gutxieneko pentsioa 1.080 eurokoa izatea eskatu zuten.

Mari Carmen Diazek eta Oihana Arregik jasotzen dituzte Txankakuaren sari nagusiak



Joan zen ostiralean banatu zituzten Txankakuak Gabonetako zozketako sariak. 500 euroko bi sari eta 100 euroko zortzi sari banatu zituzten, 1.800 euro guztira, eta sarituen hauek izan ziren: Mari Carmen Diazek eta Oihana Arregik jasotzen dituzten 500 euroko sariak eta 100 eurokoa, beste hauek: Agurtzane Epelde, Sandra Becerra, Ibaina Loiola, Amaia Martinez de Bujo, Alberto Martin, Izaskun Urbieto, Javier Mediavilla eta Pilar Sanchez. Argazkian, sarituetako batzuk.

Elgoibarko Udal Musika Bandaren kontzertua, domekan

Domekan, otsailaren 25ean, kontzertua eskainiko du Elgoibarko Udal Musika Bandak, Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. Gorka Mujika Urainek zuzenduko du kontzertua eta honako pieza hauek joko dituzte: E. Morenoren *Obertura*, Robert W. Smithen *Buffalo Dances*, J. Francoren *Gitanillo de triana*, F. Velazquezen *El hombre esponja* eta M. Burkiren *1405/El incendio de Berna*.

1,5 milioi euro jarriko ditu Aldundiak Maltzaga-Eibar bidegorria eraikitzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du bidegorri zati berriak eraikiko dituztela aurten. Iazko aurrekontuaren bikoitza izango du horretarako: bost milioi euro. Egin asmo duten bidegorrien artean dago Maltzaga-Eibar artekoa. 1,5 milioi euro bideratuko ditu Aldundiak obra horretarako.

Azpilgoetako erramu arbola handiari pisua kendu diote

Azpilgoeta auzoko erramu handia kimatu zuten eguaztenean. Iazko ekainaren 20an goiko aldera zeukan adar handi bat, kontrapisua egiten ziona, jausi zen aparkatuta zeuden bi autoren gainera, eta egun batzutan itxita izan zuten ingurua. Arbolak estres hidrikoa izan zuela zabaldu zuten orduan, eta orain, arbolak gutxienez sufritzen duen garaia dela balaituta, kimatu egin dute, oker handiegia zuelako beheko aldera.



Igandean lankide batek Elgoibarren izan zuen eraso salatuta Debabarrenako Mankomunitateko brigadako langileek

Debabarrenako Mankomunitateko langileek salatu dutenaren arabera, domeka goizean gertatu zen eraso, Albitzurin, brigadakoek ibilgailuak garbitzen dituzten lekuan, Beristain enpresaren ondoan. Salaketaren arabera, makina bat garbitzen ari zen brigadako langile bat, gizon bat hurbildu eta irainka hasi zitzaionean. Langileak orduan kargu hartu zion gizonari, zergatik iraindu ote zuen galdetzeko, eta besteak ostikoa eman zion izterondoan, lurretik harri bat hartu eta jaurtitzeko keinua egin ostean. Oinez urrundu zen ustezko erasotzailea, eta erasotuak abisua eman zuen Ertzaintzan. Ertzainak eta udaltzainak ere gerturatu ziren eraso izan zen lekura eta udaltzainek erakutsitako argazki baten bidez identifikatu zuen biktimak erasotzailea. Brigadako langileek salatu dute ez dela lehenengo aldia gizon horrek eraso egiten diena eta neurriak hartzeko eskatu dute, lanean beldurrez ari direla arrazoituta. Ertzaintzan salaketa jarri duen langileak berak salatu du aurrez ere iraindu izan duela gizon horrek eta gauza bera adierazi dute haren bi lankidek. Lan Arriskuen Prebentziorako Debabarrenako Mankomunitateko Sailetik BARRENI jakinarazi diote hartu dituztela hartu beharreko neurri guztiak eta babesa agertu diote eraso jasan duen langileari.

Bihar ez da Kale Kantarien hileroko kantaldirik izango

Hileko azken zapatuan kantura irten ohi dira Elgoibarren Kale Kantariak, baina ikusita eguraldi txarrarekin oso jende gutxi batzen zirela kanturako, hila bete honetako kantaldia bertan behera lagatzea erabaki dute. Kalera irten ordez, San Lazaro egoitzara joango dira kantura, Nagusilanetik proposatuta. 10:30ean elkartuko dira San Lazaro egoitzan bertan eta ordubete pasako kantaldia eskainiko dute bertan.

Salgai daude Mendaron Motxaila Bertsotan saiorako sarrerak

Motxailak Bertsotan jaialdia antolatu dute Mendaron hilaren 9rako. Amets eta Maddalen Arzallus neba-arrebak, Andoni Egaña eta Jone Uria arituko dira kantuan San Agustinen, 22:00etatik aurrera eta sarrerak salgai daude dagoeneko Morroskillon eta Txirristakan, bost eurotan. Maialen Olazabaek egingo ditu gai-jar-tzaile lanak.

Motxaila Eguna bera biharamunean, hilaren 10ean, ospatuko dute mendarorrek. Ohi legez Gaztetxean batuko dira 9:00etan, Aitzbeltzeko kobara oinez igotzeko, eta han jaialdia izango da. Poesia erreztaldia, ipuinak, bertsoak eta kantua izango dira jaialdiko osagai nagusiak. Ondoren, 14:00etan, elkarrekin bazkalduko dute Gaztetxean aurrez izena emandakoek (txartelak Aitzbeltz tabernan daude salgai, 12 euroan. Bazkalostean Gaztetxean jarraituko du jaialdiak eta iluntzean trikitipoteoa izango da Agosti eta Barrenarekin.

'The Primitals' antzerki musikala ikusteko aukera dago gaur, hilak 23, Elgoibarren

Ylana antzerki taldeak eta Primitalk Brosek *The Primitals* antzerki musikala umoretsua eskainiko dute gaur Elgoibarren, Herriko Antzokian. 20:30ean hasiko da saioa eta sarrerak lehiatilan ere erosi ahal izango dira, 10 eurotan (Gazte txarteldunek 7 euro ordaindu beharko dituzte).

Joe O'Curneenek zuzendutako obra da eta lau antzezlek emango diete bizia protagonistei: Iñigo Garcia Sanchezek, Pedro Herrero, Adri Sotok, eta Manu Pilasek. Tribu bati buruzko istorio bitxi surrealista kontatuko dute, eta aktoreek *a cappella* abestuko dute oholtza gainean. Aktoreak lau aborigen dira obran, eta haiekin musika genero erabiliz, barre zantzoka jarriko dituzte ikusentzuleak





“Isiltasunak, hitzik gabe ere, sekulako komunikazio gaitasuna du”

▶ **JOSE CRUZ IGARTUA** APAIZA ETA ISILTASUN ESKOLAKO KIDEA

Apaiz sakramentinoa da Jose Cruz Igartua elgoibartarra. 1973an ordenatu zen Jose Maria Setienekin Elgoibarko parrokian eta gero Bilboko auzo batean egon zen apaiz sei urtez. Madrilerara joan zen ondoren, eta gaur egun han dihardu, elizako lanak hitzaldiekin, mezekin, konfesioekin, zein bestelako meditazioekin partekatuz. Elgoibarren hilabeteetan behin meza ematen du, baita batzuetan sermoiak ere. Isiltasun Eskola abian jarri zutenetik berak egiten ditu gidari lanak.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ Elgoibarren Isiltasun Eskola jarri zenuen abian. Zertan datza?

Isiltasuna praktikatzen eta hori irakasten saiatzen ari gara. Isiltasuna bide pribilegiatua da gure barren-barrenera iristeko, eta gure ikuspuntutik, harremana izan dezakegu transzendentea den horrekin. Isiltasuna oso bitarteko ona da horretarako.

♦ Zuk zeuk erlijio katolikoa eta beste hainbat sinesmen landu dituzu.

Garapenak erlijioen eta espiritualtasu-

nen elkarrekiko erlaziora garamatza. Guztiok jaiotzen gara adimen espiritualarekin, beraz, bakoitzak bere erlijio edo espiritualtasunean eman behar ditu pausoak, baina ez bakoitza bere erduan gelditzeko, oinarria guztietan berbera baita.

♦ Beraz, kristau batek praktikatu ditzake bestelako sinesmenak?

Batik bat ekialdeko jatorria duten metodoak erabiltzen ditugu guk eta horietako

gauza asko kristautasunak ere egin izan ditu. Nik zentzua metodo horien bitartez ikasi dut. Horren guztiaren oinarrian da goena aurkitzen irakatsi digute. Hau da, ez zer egiten dugun, zertarako egiten dugun baizik. Hori da gure ustez gizakia- ren oinarria.

♦ Askok zalantzan jartzen du sinesmen horiek bateratzea posible ote den. Zuk zer uste duzu?

Ulergarria da. Mende askotan ba-



rrena esan izan da elizatik kanpora ez da goela salbaziorik. Beraz, logikoa da. Baina nik beti egin ahal izan dut horrela lan, inork ez dit uzteko agindurik eman. Vatikanoko bigarren elizbatzarrak ere esaten zuen bide espiritual guztietan zegoela egiaren bat; ez bakarrean.

Katoliko batek zen-maisu bati San Juan De la Cruzen esaldi batzuk aurkeztu zituzkion eta hark irakurri zituenan esan zion maisu-budista batek idatzitakoak izan zituzkeela. Oinarriak, beraz, berberak dira, adierazteko eta bizitzeko moduak dira kulturaren araberrakoak. Batasun sententzia oso sendoa da. Baina oraindik mende hauetan guztietan gai hauen inguruan sortutako hondakinak tarrasean daramatzagu.

Esaterako, Elizan emakumea komunioa ematen ikusteak asaldatu egin izan du jende asko; orain, beharbada, guxtiago, baina bai. Madrilen, adibidez, jauna hartzeko zain dagoen jende bat ikusten duenean jauna ematen ari dena emakumezkoa dela, aldameneko ilarara pasatzen da.

Nik gustuko dut ilargia seinalatzen

duen atzamarraren eredu. Erlijio guztiak dute atzamar bat, baina guztiok hor gelditu gara. Beraz, eskolan lan egin nahi genuke etengabe atzamarretik harago joateko, hor aurkituko baitugu gure burua.

◆ Nola landu daiteke hori?

Barneratzearen bidez. Ez da askorik jakin behar jainkoari edo mirariei buruz; bizi egin behar dira, sentitu eta norbere esperientziatik hitz egin. Zalantzak nola bideratu jakin behar da, batzuetan fundamentalista egin gaitzakete-eta.

◆ Zein dira lantzen dituzun erlijio edo sinemenen arteko ezberdintasunik nabarmenenak?

Gauzei jartzen dizkiegun izenak dira ezberdinak. Kristauok jainko pertsonal bati buruz hitz egiten dugu, budista batek eze-rezaz edo guztiaz hitz egin dezake, beste batek energiaz... Baina hitz guztiak gerturatu egiten gaituzte, gure hitzek sekula ezin dituzte definitu gauzak eta are guxtiago jainkoa edo haraindikoa.

“Bide espiritual guztietan dago egiaren bat, ez bakarrean”

◆ Gauzak sinemenaren alorrean beritzen direla dio zenbait, baina erlijioa eta modernotasuna badirudi ez datozela bat. Gaur egungo gizartean zein leku du?

Ez dira bateraezinak. Garatuz doa, aurrera. Esaterako, talde batean gimnasia egiten hasiz gero, kide bakoitzak arintasun maila ezberdina izango du, baina ezberdintasun horrek lagunduko digu guztiok lan egin dezagun gure arintasuna gero eta handiagoa izan dadin, eta iritsiko da momentu bat guztiok lurra ukitzera helduko garena.

Hau guzti hau hazteko aprobeztatu beharko genuke. Ez da iritsiko gizateria osoak erlijio bat praktikatu duen eguna.

Bakoitzak bere erlijioa izango du, beste guztien oinarri berarekin, baina bakoitzak bere erara, bere kulturaren arabera. Bate-ratzen gaituztenak ez dira formak, mamia baizik.

◆ Gero eta jende gutxiagok parte hartzen du elizako jardueretan?

Elizak animatu behar gaitu berriz pentsatzera nola lagundu diezaiokgun elkarri gure arteko konpondu ezinak eta urrutizkoak gutxitzen. Bartzelonan bada erlijio ohituren ikerketa etxe bat, eta nazioarteko azken kongresuan landu zuten nola lagundu dakieken 45 urtez azpikoei hedadura espiritualera zabaltzen. Guk izan ditugu eta baditugu euskarri espiritualak, baina gazteek zer? Badira urrundutako gazteak, oso urrundak eta beste batzuk gai hauetan pentsatu ere egiten ez dutenak. Beraiek ere badute oinarri hori, baina esnatu egin behar da. Bestalde, askotan kristautzat jotzen ditugun baloreak garatzen ari gara, baina ez digute esan hala direnik. Esaterako, elkarrekiko fedea izan dezakegu, baina fedea ez da ikusten ez dugun horretan sinestea, fidatzea baizik. Beraz, bizitzen ari garen horrekin kon-turatu behar gara.

Elizak jendeari aukera eman beharko lioke norbere baitan esperimendatzeko. Badira hainbat egi, sinestegiak direnak, baina tamalez ez dugu modurik izan sinesten dugun horretan barneratzeko, ez adimenez baizik eta bihotzetik.

◆ Zuen elizan, Madrilen, ohiko elizkizunez gain, bestelako meditazioak ere egiten dituzue, ezta?

Isiltasun eskola da egiten duguna. Zen tradizioa dugu, eta nik baita kristau tradizioa ere. Komunitate bat badugu eta eguneroko meditazio uneak dauzkagu. Batzuk eguneroko etortzen dira; beste batzuk, astean behin edo bi astean behin. Baina sortzen den giroa eta elkarri ematen dugun energia eta afektibotasuna hain da handia, denbora tarte batean joan ez arren ez garela arraro sentitzen, bezperan han izan bagina bezala izaten da. Madril bezalako hiri batean auzoaren arabera izaten da horrelako kontuetan hartzen

den jarrera. Nire eliza dagoen auzoa oso tradizionala da, eta hori traba da hainbat jende meditazio saioetara etortzeko; beste batzuk denbora falta arrazoitzen dute. Baina taldean elkartzen garen asko 30 urtez ari gara isiltasunaren bidean.

Isiltasuna da jarduera nagusia. Barneratzeko, saiatzeko gara ohitzen, hainbeste urtetan, nahi duen tokian hegan egitera eta hain barreiatuta egotera ohituta dagoen gure burua toki batean kontzentratu dadin. Horretarako balia daitezke arnasketa, ebanjelioko esaldi bat, hitz bat... burua zenbat eta gauza gutxiago eduki, orduan eta errazagoa da irekitzen. Batzutan pentsa genezake: non dago jainkoa hor? Jainkoa bidearen sa-

konean, muinean, dago. Beraz, gure helburua bidea irekitzea da, eta zenbat eta gehiago ireki jainkoaren oinarria, orduan eta gehiagok izango dute eragina gudan, eta ez ideiak etorriko zaizkigulako, baizik eta sententzioak. Zalantzarik gabe, sinistuta gaude noizbait hala izango dela.

Isiltasunak, hitzik egin gabe ere, sekulako komunikazio gaitasuna du. Nik pasa izan ditut asteburuak jende ezezagunarekin batera hitzik egin gabe eta familia zentzua sortu du bizitakoak. Barne bidearen oinarri nagusietariko bat isiltasuna eta horren baitan dauden pentsaera, muin eta filosofia praktikatzea da eta taldea, noski. Bai budismoaren eta baita kristatutasunaren esanetan.

◆ Zer eman nahi zaio isiltasun eskolara doan horri?

Lan oso luzea da. Emakumeek bederatzi hilabete behar dituzte umeaz erditzeko eta espiritualki hazteko edo gizalegez heltzeko ez dira bederatzi hilabete behar, baizik eta askoz gehiago. Isiltasunaren bidean emaitzak epe luzera iristen dira, dagokien momentuan.

Bestalde, ez gaude ohituta ulertzera gizakiaren bizitzan gauza asko opariak direla eta baita barne bidean sentitu ditzaiegun gauza asko ere. Opariak ez dira ematen eskatu ditugulako, baizik eta oparitu nahi dituen horrek hala nahi duelako eta momentua aurkitu duelako.

ISILTASUN ESKOLA ELGOIBARREN

Elgoibarrera, Isiltasun Eskola opari modura iritsi zela diote taldeko hainbat kidek "jainkoaren opari gisa". Jose Cruz Igartuak gaiaren inguruko jakintza herritarren aurrean azaldu eta hainbat herritar erakarri zituen hitzaldira. Oraingoz hiru saio egin dituzte eta hilabetean behin elkartu dira, baina Isiltasun Eskolarena zabalik dagoen prozesua da, eta edozeinentzat dago tokia taldean, besteak beste, gazteentzat. Irekita dagoela nabarmendu dute, badirudielako erlijioak mugatu egin duela jendearen gerturatzeko nahia. "Gehienok izan dugu noizbait elizarekin harremana, baina taldeak ez dauka zerikusirik elizarekin instituzio gisa. Jose Cruz Igartuak ireki dio bidea gurean lau hormen artean gordeta zegoen ideia bati. Ondo datorkigu ez elizarekin zerikusia dutenei bakarrik, Zen tradizioa ere hor dago. Ez dira oker ulertu behar, izan ere, bakoitza bere erara isiltasun eskolan egon daiteke independente, kristau bat, agnostiko bat, ateo bat, maometanoa... Isiltasun Eskola denok gara, bakoitzak bere barrena garatzen du isiltasunaren baitan", diote taldekideek.

Elgoibarren, hilean behin elkartzen direnetan meditazio saioak egiten dituzte. Lehenengo arnasketa saioen bidez barneratzen dira; ondoren, meditazio paseoa egiten dute, burua



Luis Bilbao, Jose Cruz Igartua eta Eduardo Osoro, Isiltasun Eskolako kideak.

pausoetan zentratuta kontzienteki bizi izaten ohitzeko. "Ez gara kontziente izan behar meditatzen ari garenean bakarrik, akzioan ari garenean ere. Azkenik, meditazioa bukatutakoan, espiritualtasunari buruzko azalpenak ematen ditu Jose Cruz Igartuak eta elkarrizketarako bidea irekitzen du.

Hurrengo meditazio saioa martxoaren 22an egingo dute 20:00etan Kultur Etxeko hitzaldi gelan eta jakinarazi nahi dute ordurako iritsi ezean ezingo dela aretoan sartu isiltasuna delako oinarria.



“Haurrak, beste ezeren gaineretik, denbora behar du jolaserako”

TXUSMA AZKONA LIZARRAKO PLISTIPLASTA FAMILIA ETA JOLAS GUNEKOA

Zabalik dago Atxutxiamaiak eta Ludotekek antolatu duten udaberriko oporraldirako izenematea. Eskaintza zabala da, baina *Apariketan* egitasmoko neska-mutilen gurasoentzat martxoaren 26rako antolatu duten tailerlean jarri dugu guk arreta. Jolas librea gai hartuta ariko da So-toan Txusma Azkona Lizarrako Plistiplasta Familia eta Jolas guneko kidea.

- AINARA ARGOITIA -

♦ Zeri deitzen diogu jolas librea?

Jolasean libre aritzeko aukerari. Eta hala deitzen diogu, daukagun kontraesana azaleratzeko. Jolasa berez da librea, baina ikusten dugu helduen geroz eta interbentzio handiagoa dagoela jolasean. Haurren agenda oso bideratua eta bete da daukagu. Eskolatik irtean haurrak hor doaz helduren batek zuzendutako jardueraren batera, eta azkenean, berezko jolasa izateko aukera galtzen ari dira. Eta horrek, jakina, ondorioak dauzka.

♦ Adibidez?

Batetik, ikusi dugu loditasuna duten haurren kopurua izugarri handitu dela, neurri handi batean haurrentzako jarduerak oso zuzenduak daudelako eta ez dutelako aktibitate fisikoa egiteko aukerarik. Eskolara ere, gehienetan edo portzentaje handi batean, kotxez edo autobusez joaten dira. Gero, eskolan, soinketako tartea albora utzita, gainerako denbora jarrita egiten dute, eta eskolaz kanpoko jarduerak gehienak geldirik edo eserita egitekoak dira. Kirolean bertan ere denbora asko pasatzen dute entrenatzaileari entzuten, geldi. Eta etxean, beste horrenbeste.

♦ Zerk pizten du haurren arreta?

Jarduera fisikoa bera nahikoa jolas da haurrentzat. Jostailuetaz ari garenean, be-



rriz, aztertu beharko genuke adin bakoitzean zeintzuk jarduera dituzten eta zeintzuk behar asetu behar dituzten jostailu horrekin. Baina haurrak, beste ezeren gaineretik, denbora behar du jolaserako. Denbora osoan estimulaz betetzen badugu, ez du bere gorputza ezagutzeko eta bere gorputzarekin jolas egiteko aukerarik izango. Hara, gauza bat: material naturalez aski dute haurrek jolasteko eta ondo pasatzeko. Etortzen zaizkigunean esaten jolas bat edo beste pedagogikoa dela alertan jarri beharko ginateke, normalean jolas pedagogiko deitzen diren horiek haurren jolasa zuzendu baino ez dutelako egiten. Eta guk esaten duguna da jolasa berezko zerbait duela haurrak eta hori garatzeko espazioa eta denbora eskaini behar zaizkiola.

♦ Jolaserako espazio zenari ere, itxitura jarri diogu, baina.

Hori da gure arazoetako bat. Gauza gehiegitaz gara orain beldur. Eguraldiaz ere bai!. Gurasoei beti esaten diegu ez dagoela eguraldi txarrik jolaserako, baizik eta arropa desegokia. Baina badira uxatu beharko genuke denbora beste beldur batzuk

ere. Heike Freirek esaten du garai batetik hona %90 murriztu dela haurrek jolasean dabiltzala gurasoengandik mantentzen duten distantzia. Eta izugarri da hori. Gaur, haurrak begibistan ez baldin baditugu, ikaratu egiten gara, baina haurrek ere behar dute intimitatea. Batetik, telebistatik ikusten ditugun izugarrikerien beldur dira gurasoak, eta bestetik, uste dute haurra zenbat eta goizago hasi lan egitera ohitzen eta lan egiteari lotutako jardueretan hobeto moldatuko direla bizitzan, eta oker dabilta.

♦ Hortaz, azpimarratu beharko genuke jolasak ere balio duela ikasteko.

Hori baino gehiago da. Ikasi jolasten bakarrik ikasten da. Gu umetan parkean ibiltzen ginen jolasean Donostian, eta han ez geneukan portierarik eta ez geneukan guraso bat arbitroarena egiten, eta garbi daukat han ikasi genuela negoziatzen, gola gol ote zen edo ez eztabaidatzen genuenean. Haurrei horrelako aukerak falta zaizkie orain, beraien arteko harremanak eta frustrazioak behar bezala eramateko. Bizipen horiek beharrezkoak dira bizitzako zailtasunei aurre egiteko.



Eguraldia albiste denean

On hainbeste txar egiten du eguraldiak, baina batzuentzat ona den hori txarra izan daiteke besteentzat. Ona zein txarra eguraldia berbetarako sarri erabiltzen den gaia da. Elurra eginez gero, ohi baino bero handiagoa egiten duenean, egun batean sekulako hotza egin eta hurrengoan asko epeltzen duenean... beti ematen du hizketarako gaia. Komunikabideek eta sare sozialek ere tarte handia eskaintzen diote eguraldiari eta BARRENEAN ere egin diogu. Miriam Ruiz elgoibartarrak fisika ikasi zuen eta atmosfera fisikan espezializatu zen, eta orain, Euskalmeten dihardu lanean. Meteoelgoibar izenpean gordetzen den Gorkak, berriz, meteorologiarako zaletasuna du, eta Facebook bidez iragartzen du batean eta bestean egingo duen eguraldia.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

Altzolan dugu gertuen eguraldi estazioa eta horrelakoetatik jasotzen dituzte eguraldiaren egoerari buruzko hainbat datu (tenperatura, presioa, hezetasuna, haizea...). Horrez gain, meteosat irudia eta radarra ere baliatzen dituzte eredu meteorologikoekin iragarpenak egiteko. Miriam Ruizek, iragarpenak egiteaz gain, horren berri ematen du medioetan, besteak beste, EITBn. Meteoelgoibarrek zaletasuna du meteorologia. Orain dela bi urte hasi zen Facebooketik iragarpenen berri ematen, eta azken aldiko denborale eta elurteak tarteko, 1.000 jarraitzailearen muga gainditu du. Informazioa lortzeko beste aditu batzuegana jotzen du, batik bat sare sozialen bitartez. "Twitter da egokiena, infor-

mazio eguneratua ematen duelako. Interneten ere kontsultatzen ditut adituen orrialdeak, gero nire jarraitzaileei erraz esateko egingo duen eguraldia. Batzuek esaten didate orain ez dutela telebistan eguraldi tarte ikusten, nik zer esango zain egoten direlako. Pixka bat ikasi dut mapak irakurtzen, borraska edo antizikloiak ikusten edo egun batzutura egingo duen eguraldia nolakoa izan daitekeen antzematen".

Miriam Ruizek berak egiten ditu iragarpenak eta mapak interpretatzea ez da erraza bere ustez. "Ezgonkortasuna dagoenean, goi geruzetan aire hotza sartu eta zirkulazio orokorra etenda dagoenean, airearen kokapenaren arabera iragarpena asko aldatu

daiteke egun batetik bestera, baita egunean bertan ere. Elurak ere ematen ditu zailtasunak. Euskal Herriko orografia oso konplexua da, eta elur maila zehaztea ez da erraza".

Iragarpenak iragarpen jendea ez da beti fioizaten esandakoekin. "Atmosfera kaotikoa da, hau gobernatzen duen ekuazioa zehatz ezingo da askatu. Beti egongo gara hasierako baldintzen, eredu meteorologikoen eta ordenagailuen mende. Izan ere, teknologiak hobetu arren, denbora pila bat behar da kalkulu guztiak egiteko. Beraz, non eta zenbat euri egingo duen zehaztasun guztiarekin inoiz ez dugu esango. Baina badakigu euritara joko duela, tenperaturak gora edo behera egingo duela, noraino iritsiko den, haizearen abiadura zenbatekoa izango den... 3-4 eguneko iragarpenetan fidagarritasun handia dago egoera gehienetan", dio Miriam Ruizek.

Batzuek iragarpenekin asmatzen ez dela esaten dute. Meteoelgoibarrek, ordea, uste du gehienetan asmatzen dela, nahiz eta itsasotik gertu bizi garenez eguraldia aldakorra izatea errazagoa den. Kontsultatzen dituen iragarpenetan badu fedea, berak ere noizbait hanka sartu badu ere. "Meteorologia ez da zientzia zehatza", dio.



Miriam Ruiz



Askotariko informazioa eskatzen idazten dio Meteoeigoibari jendeak. "Batzuek Inauterietako zapatu gauean zein eguraldi izango zuten galdetu zidaten kalean eta harritu egin nintzen. Idatzi ere egiten didate leku zehatzen batera joan behar dutenean. Nik ere ezagutzen ditut batzuk. Behin Bilbon eguraldi hotza egingo zuela iragarri nion neska bat eta hurrengo egunean galdetu nionean ea hotzik pasa ote zuen, harrituta begiratu zidan. Nor nintzen esan behar izan nion".

MEDIOETAN EGURALDIAZ GEHIEGI

Facebook bitartez ematen du eguraldiaren berri, baina, hala ere, komunikabideetan gehiegi hitz egiten dela uste du Meteoeigoibarek. "Ez dut pentsatu nahi hori denik asmoa, baina badirudi jendea ikaratu nahi dutela. Orain dela bi aste, esaterako, Euskalmetek alerta zabaldu zuen 100 metroan elurra egingo zuela esanez eta apenas ikusi genuen". Medioetan eguraldiaz zenbat eta gehiago hitz egin, jendeak are gehiago jakin nahi du Meteoeigoibarren esanetan. "Ondo dago jendea jakinaren gainean jartzea baina... Ziklogenesi explosiboa izan zenean, esaterako, telebistan munduaren amaiera baletor bezala saldu ziguten eta betiko borrasa baino ez zen izan, agian haize gehiagorekin, baina horixe. Hotz olatuekin ere jendea ikaratu egiten da. Baina neguan hotz egiten du; hala behar du".

Miriam Ruizek ere hala uste du, eguraldia beti dela albiste. "Jakinmin handia daukagu eta beti albistearen bila egoten dira medioak. Gehiegizkoa iruditzen zait: urteko egunik euritsuena, beroena, hotzena... Kazetariak sekulako elurtearekin hotzez ikusteak pena ematen dit niri. Baina eguraldiari dagokionez, gehienon memoria historikoa txikia da. Nik neuk ere ez dakit agian aurreko negua nolakoa izan zen; ahaztu egiten zait. Beraz, beti joera dago albiste bilakatzeko eta puzteko. Albistegietan esaten da sekula ez duela hainbeste euri egin, eta beharbada urtebetean ez du egin, baina orain dela bost, bai. Medioetan gehienetan titularretan sartzen gara eta denbora laburra dugu ezer askorik esateko. Egoera korapilatsua denean, tartea handiagoa izaten da. Azken aldiak hotza izan da albiste, baina batez ere, udan hitz egiten da eguraldiaz, beharbada neurtzeko errazagoa izaten delako. Eguraldia garrantzitsua da, noski, komunikabideetan audientzia handiena duen tartea delako eguraldiarena, eta jakina, erabili egiten dute; jendeak jakin nahi badu, ba eman".

Berak iragarpena egin ondoren azaldu egin behar izaten du medioetan, jendeak ulertzeko moduan, hizkuntza zientifikoa moldatuta. "Esaterako, haizea ahula edo ertaina izango den esateko, abiadura tarte batzuk hartu behar dira kontuan, beraz, haize bortizik egon behar ez bada ez du eguneroko bizitzan garrantzia berezirik; beraz, ez dugu esaten". Baina denok jakin nahi izaten dugu datozen egunetan edo astean zein eguraldi egingo duen. "Lehen hiru egunetako iragarpenaren fidagarritasuna %80-90 ingurukoa da, baina lehen 7-10 egunetik aurrera fidagarritasun maila-oso-oso txikia da. Egoeraren arabera ere gerta daiteke hurrengo egunerako eguraldia ezin erabat zehaztea, baina



Meteoeigoibar

era berean jakin genezake handik hiru egunera antizikloia sartuko dela eta hiruzpalau egunean ateri egongo dela".

EGURALDI ONA ALA TXARRA?

Iragarpenei jartzen zaie arreta, baina oro har uste du eguraldiarekiko mendekotasun handia daukagula, "bai aisialdirako eta baita lanerako ere. Esaterako, teiltuak konpontzen ibili behar denak, jakin behar du euria egin behar duen edo haize handirik izango den".

Berak lanean ez dagoenean, jendeak galdetuz gero, ez du askotan jakiten lankideak irratian entzunda ez bada. Lanean ari denean, ordea, asmatu duten ala ez begiratzen du. "Udako egun eguzkitsu batean lainotuko dela esan eta hodeiak ikusiz gero lasaitzen naiz. Beste batzuetan, asmatu ezean, amorratu. Leku zehatz batean uste genuena baino askoz euri gehiago egitea ez asmatzea da, baina oso fenomeno lokalizatuak izaten dira, eta gero eta gutxiago gertatzen dira". Hortan diharduelako, baina badaki zaletasuna duen jende askok ere erreparatzen diola eguraldiari. "Horrelakoek askotan badakite fronte bat baldin badator aurretik hodeiak ikusiko direla. Gauza batzuk jakin daitezke errepikatu egiten direlako, baina fenomeno konplexuagoak ulertzea eta azaltzea zailagoa da".


Eguraldia nolakoa den esateko ona eta txarra erabiltzen dira, baina hori ere oso erlatibo da. Meteoeigoibar hotzaren eta bustiaren zaleagoa da, baina ateri egitea eta eguzkiak pixkat epeltzea ere gustatzen zaio, beraz, zaila zaio zer den ona eta zer txarra esatea. Miriam Ruizek ere egun hauetako euria ona ala txarra den galdetuta zera dio: "kalean umeein ibili behar garenontzat txarra, baina baserritarrentzat seguraski ona. Beraz, saiatzen gara iragarpenak ahalik eta modurik positiboen azaltzen".



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Pista beltza zuloz beteta: "Juan Mugertza kalearen, pista beltzaren, egoera oso kaskarra da. Asfaltoa zuloz beteta dago, eta lurra oso apurtuta. Euria egiten duenetan putzu oso handiak sortzen dira. Udalari eskertuko nioke lehenbailehen konpontzea". Kale horretako obrak egiteko zenbatekoa iazko aurrekontuetan jarri arren, lanak ez zituzten egin eta aurtengo Udal aurrekontuetan berriz jaso dute. Udaletik esan dute ekainetik abuztura bitartean lanak egitea aurreikusi dutela. Gainera, zuloak estali baino pista edo kale guztia tapatzea eta berritzea da egitasmoa, aurrerantzean, besteak beste, euria egiten duenetan putzurik ez sortzeko eta herritarrak eroso ibiltzeko.



Zabor poltsak edukiontzietatik kanpo: Zabor sistema berria jarri dutenetik jendeak zabor poltsak edukiontzietatik kanpora uzten ditu. Txakurrek ere bertatik igaro eta barreiatu egiten dute zaborra. Mankomunitatera deitu dugu eta esan digute pasatzen direla horiek biltzera, baina bien bitartean hor egoten dira. Sistema aldatuta ustez aurrerapausu bat izan behar zena kalterako dela dirudi. Izan ere, batzuk txartela hartu ez dutenez, besteentzako traba eta zikinkeria da". Udaletik edukiontzi griserako txartelik hartu ez duten elgoibartarrei eskatu nahi diete Kultur Etxetik pasa daitezela horren bila eta ez dezatela poltsak edukiontzitik kanpora uzteko ohitura txarra hartu. Astelehenetik domekara bitartean (martitzenetan salbu), Udalak pertsona bat dauka, 14:00etatik aurrera, lekuz kanpo dauden zabor poltsa horiek jasotzeko, baina hori behin behineko neurria baino ez da.


Sigmako zubian arrapalarik ez: "Sigmara bidean, josteko makina pareko zubia konpondu eta igogailua ipini zuten. Lehen zubiak arrapalak zituen igoera errazteko, orain, ordea, ez. Igogailua hondatu izan denetan ezinduek errepidea gurutzatu behar izan dute trafikoaren arriskupean. Gainera, koska dago eta tratatzeko arriskua". Udaletik adierazi dutenez, ez dago arrapala horiek konpontzeko asmorik eta igogailua hondatzen denean kaltetuek udaletxera deitu behar dute, edo bulegoko orduetatik kanpo izanez gero udaltzainetara.



Azterketa garaia: "Jakin nahiko genuke garai batean moduan Kultur Etxeko sotoa zabalduko ote den azterketa garaian ikasteko". Elgoibarko Udaleko Kultura Sailetik erantzun dute gutxienez hogeit hamar laguneko talde bat osatu behar dela sotoa zabaldu ahal izateko, beti ere sotoa aurrez eskatua ez badago. Talde horretako norbaitek hartu beharko luke ardura eskaera-orria bete eta arreta bulegoan aurkezteko.

“Errefuxiatuen gaia ez zen aurrez guk nahi besteko sakontasunez landu”

▶ JOSU TRUEBA LEIVA ARGAZKILARIA ETA ‘KAXA HUTSAK’ PROIEKTUKOAKO



Gari Garaialde, Josu Trueba eta Iker Oizek, ‘Kaxa hutsak’ proiektuaren sortzaileek, *Oroimina loretan*. 30 urte deserrian dokumentala eskainiko

dute martxoaren 2an, 19:30ean, Musika Eskolako auditoriumean. Iheslarien inguruko dokumentala da, eta tartean, Josu Lariz elgoibartarraren historia ere batu dute.

- AINARA ARGOITIA -

♦ **Frankismo garaitik gaur arte historian momentu diferentetan erbestera joandakoen bizitza erretratatu duzue. Honen abiapuntua non dago, baina?**

Proiektu honetan parte hartu dugunok sakabanaketaren gaia landua genuen aurrez, Gari Garaialdek bere aldetik eta guk, Iker Oizek eta biok elkarrekin, *Km0, las mil caras de la dispersión* proiektuan, eta nik uste dut kartzeletara egindako bidaietan jabetu ginela iheslarietara ere eman behar genielako ahotsa. Gatazka politikoa erekin lotura duten gaietara interesak batu gintuen. Gizarte osoari eragin dio gatazka politikoa honek eta iruditzen zitzaigun errefuxiatuen kontua ez zela ordu arte arte guk nahiko genukeen besteko sakontasunarekin landu. Ez dut gai hau ahaztua egon denik esango, baina ez da behar den gertutasunarekin eta sakontasunarekin landu. Eta era berean, gehituko nuke ez dela gaiak eskatzen duen independentziarekin ere landu.

♦ **Eta elkarriketekin hasi zineten gero.**

Bai, Londresen bizi zen gazte batekin hasi ginen lanean, iruditzen zitzaigulako halako gai bat lantzen hastekotan ihesla-



Arg.: BOSTOK Photo

riaren ohiko profila ematen ez zuen batekin egin behar nuela. Ezin genuen Iparraldean edo Amerikan bizi den iheslari batekin hasi, iheslariaren irudi erromantiko horrekin. Kale borrokagatik zigortutako gazte batengan jarri genuen begia.

♦ **Zer dela eta ‘Kaxa hutsak’ izena?**

Joseba Sarrionandiak poema batean erabiltzen duen definizio batetik hartu genuen. Poema horretan dio exilioa armairu batean bizitzea dela, norbaitek zabalduko duenaren beldurrekin bizitzea dela, baina baita inork sekula irekiko ez duen beldurrekin bizitzea ere. Gari Garaialdek proposatu zuen izena eta aproposa iruditu zitzaigun.

♦ **Oraindik ehun bat iheslari badaude erbestean halako linbo legal batean. Orokortzea beti da arriskutsua, baina zer esan genezake haiei buruz?**

Egoera gogorren bizi izan direla eta bizi direla asko. Iheslari bakoitzaren egoera oso ezberdina da, hala ere, eta horregatik egin dugu proiektua egin dugun modukoa. Sei-zazpi iheslarirekin egon

gara eta haietako bakoitzaren esperientzian jarri dugu arreta. Gauza bat badute, hala ere, amankomunean: denek dakitela zergatik ezin duten Euskal Herrira itzuli. Gatazkan parte aktibo izan dira, eta badakite konpondu arte ezin direla itzuli. Dokumentalean, Josu Lariz ere agertzen da. 30 urte egin ditu sorterritik kanpo, lau bat Iparraldean eta gainerakoak atzerrian, eta ez dut gauza handirik aurreratu nahi, baina esango dizuet oso pertsona interesgarria dela, asko hausnartu duena, eta batzuek hondoa jo dezan eginahalak egin badituzte ere, tinko eutsi diona. Sekulako historia dauka Josuk, eta horregatik animatu nahiko nituzke elgoibartarrak dokumentala ikustera, Josurena ere badelako gure herri honen historiaren parte bat. Barre, negar... denetarik egingo du datorenak. Egin nahi genuenean sinistuta joan ginen Uruguaira, historio hauek batzea garrantzitsua zela sinistuta, eta halakotan, zaila izaten da beste aldeak ezetza ematea. Eta ireki zitzaigun Josu ere. Ordu asko eman genituen elkarrekin.

▶ Euskara, jokoz kanpo?

C.D. Elgoibar eta Idiazabal futbol taldeek joan den otsailaren 17an Idiazabalgo Arizkorreta futbol zelaian jokatu zuten partidak soka luzea ekarri du. Erregional Preferente mailako partida arrunt bat gehiago izan behar zuenak futbola eta kirola bazter laga eta euskara jarri zuen eztabaidaren jomugan, Euskal Herrian euskaraz egiteko debekua, hain zuzen ere.

Manuel Sarrion Gonzalez futbol epaileak bi taldeei egin zizkien adierazpenetan dago auziaren iturria. Zelaira atera aurretik, arbitroak bi taldeetako delegatuei ondoko agindua eman ziela salatu zuten bi taldeek: "Norbaitek euskaraz berba egiten badu, kalera joango da". Idiazabal Kirol Elkarteko presidente Matias Aranburuk partidaren amaieran esan zuen hitz batzuk ulertzen zituen arren, ez zela irainak eta bestelakoak ulertzeko gai esan ziela arbitroak. "Harro antzera hitz egin zuen, eta jokalaria kanporatzeko mehatxu egin zuen. Guk esan diogu hemen beti euskaraz egiten dela, eta irainik egonez gero, ulertuko zituela, baina alferrik izan da", zehaztu zuen Aranburuk. Omar Aizpuru Haundiko entrenatzaileak antzeko adierazpenak egin zituen Twitter sare sozialetan bidez: "Nire haserrea agertu nahi dut, gaur preferente mailan Idiazabal-Elgoibarren partidaren amaieran epaile andaluziar batek, euskaraz hitz egitea kaleratze batekin zigortuko duela esan digulako", idatzi zuen oihartzun zabala izan zuen txioan. Arbitroaren "agindua" bete eta partida jokatzea erabaki zuten bi taldeek, baina gertaturikoa publikoki salatu zuten amaieran.

Auziaren oihartzuna nazioarteko komunikabideetara ere ailegatu zen, BBCra esaterako. Elgoibarko eta Idiazabalgo Udalek ere gaitzetsi zuten gertatutakoa eta babesa eman zieten bi taldeei. Era berean, Gipuzkoako Foru Aldundiak ohartarazi zuen "irmo" defendatuko zuela euskara "edozein erasoren aurrean". Idiazabal eta Elgoibarren arteko partidaren arbitroak jokalariei euskaraz berba egitea debekatu izana "oso larria" dela uste du Aldundiak. "Halako jarrerak gure hizkuntzari bakarrik ez, gure kulturari eta gure herri izaerari erasotzen diotelako", adierazi zuen Aldundiko bozeramaile Imanol Lasak Idiazabalen gertatutakoaz.

Arbitroaren bertsioa

Pil-pilean zegoen eztabaida puztu besterik ez zuen egin Sarrion epaileak martitzenean, hainbat komunikabideri emandako adierazpenen ondorioz. Euskaraz hitz egiteagatik jokalaria zigortuko zituela esan izana ukatu zuen. Sarrion andaluziarra da eta azarotik bizi da Gipuzkoan, eta ez du euskara ulertzen. Azaldu zuenez, arrazoi horregatik biltzen da taldeetako ordezkariekin partida hasi aurretik, bere egoera pertsonala zein den azaltzeko. Berari gaztelaniaz hitz egiteko "eskatzen" die, baina partidaren zehar euren artean euskaraz hitz egin dezaketela esan




C.D. Elgoibarko presidente Jon Basurto eta Idiazabal K.E.ko presidente Matias Aranburu IMHn eskaini zuten prentsaurrekoan.

ten die. Gipuzkoako Futbol Epaileen Komiteak babes osoa eman zion Sarrion epaileari.

Arbitroak komunikabideetan eginiko adierazpenekin haserre, elkarrekin agertu ziren prentsaren aurrera C.D. Elgoibarko presidente Jon Basurto eta Idiazabal K.E.ko presidente Matias Aranburu. Martitzen arratsaldean egin zuten agerraldia IMHko gela batean. Aurrez esandako guztiak berretsi zituzten eta gezurretan aritzea leporatu zioten epaileari. "Guk esandakoa izan zen Idiazabalen gertatu zena. Horregatik, partidaren ondoren egin dituen adierazpen guztiak atzera botatzeko "exijitzen" diogu Manuel Sarrion Jaunari". Bi taldeetako presidentek esan zuten ez dutela utziko inork beren armariak zikin ditzan. Jon Basurtok eman zion amaiera agerraldiari honako berbekin: "C.D. Elgoibar etengabe ari da lanean euskara gure eguneroko jardunean egon dadin, eta Idiazabalen gertatutakoak indartu baino ez du egiten gure hizkuntzarekin daukagun lotura eta konpromisoa".

Lehia batzordeak txosten informatibo bat irekitzea adostu du. Datozen egunetan bi aldeak entzun eta datorren martitzenean hartuko du erabakia.



Manuel Sarrion epailea.

Iñigo Lariz eta Maite Maiora Euskal Herriko txapelkun mendi eskian



Bandres-Karolo Memoriale jokatu zuten aurreko asteburuan Izaban, Belagoako bailaran. Mendi eskian Euskal Herrian egiten den proba bakarra, arden Euskal Herriko Txapelketa ere izan zen, kronoigoera edo igoera bertikaleko modalitatean. Iñigo Lariz elgoibartarra eta Maite Maiora mendaroarra gailendu ziren. Larizek 38 minutu eta 58 segundoan osatu zuen igoera eta 36 segundoko alde ateratzen zion Mikel Navarriori. Javi Dominguezek egin zuen hirugarren (39:49). Maite Maiorak 45 minutu eta 33 segundoan bukatu zuen proba. Laura Solak egin zuen bigarren (46:29) eta Igone Camposek hirugarren (47:30). Iñigo Larizentzat mendi eskian proba bertikaleko Euskal Herriko txapelketa irabazi duen zazpigarren aldia izan da. Maite Maiorak, berriz, estreinakoz irabazi du titulu hau. Larizek, gainera, domekan jokatu zuten lineako proba ere irabazi zuen, eta lehen postua eskuratu zuen sailkapen konbinatuan.

Ainhoa Lendinez eta Javi Dominguez sarituak Euskal Mendizaletasunaren Galan

Euskal Mendizaletasunaren XXII. Gala ospatu zuten otsailaren 16an Gasteizko Europa biltzar jauregian. Batetik, Euskal Mendizale Federazioak (EMF), 2017ko mendiko kirolari onenen garairurrak banatu zituen; eta, bestetik, Pyrenaica sariak ere banatu zituzten. EMFk banatutako sarietako bat Javi Dominguezentzat izan zen. Elgoibarren lan egiten duen kirolari gasteiztarrak 2017ko mendi lasterkari onenaren saria jaso zuen. Ohi duen moduan, EMF-ren *Pyrenaica* aldizkariak ere gala baliatu zuen urteko sariak banatzeko. Sarion 35. ekitaldia izan da aurtengoa. Pyrenaicako blogaren sarian, bisitarik gehien izandako sarreraren Pyrenaica saria Ainhoa Lendinez elgoibartarraren *Urresteiko ertza* lanari eman zioten.



Lau domina lortu dituzte Mintxetako atletek Gipuzkoako txapelketan



Martin Hernandez

Urrezkoa, zilarrezkoa eta brontzezko bi. Lau domina eskuratuta itzuli da Mintxeta Atletismo Taldea Gipuzkoako Atletismo Txapelketa. Gainera, Mintxetako bost kidek euren marka pertsonalak ondu zituzten Donostiako Belodromoan jokatu zen txapelketan. Martin Hernandezek urrezko domina irabazi zuen 800 metroko lasterketan, 2.05,87 denbora egin eta gero. Urtarrilean Gipuzkoako Txapelketa irabazi zuen seniorretan. Nerea Sasiain 200 metroko proban lehiatu zen, eta ez zen batera gaizki aritu, zilarrezko domina eskuratzeari gainera, 26,02ko denborarekin bere marka pertsonala ondu baitzuen. Ander Armendiak 400 metroko lasterketan hartu zuen parte eta hirugarren postuan sailkatu zen, 53,13ko denbora eginda. Eider Iglesiasek ere brontzezko domina lortu zuen luzera-jauzian. Bost metroko jauzia egin zuen, denboraldiko bere marka onena.

Ramon Garcia seigarren Tarazona Hiria txirrindulari lasterketan

Master mailetak txirrindulariek denboraldiko bigarren proban parte hartu zuten Zaragozan. Zapatu eta domekan jokatu zen Tarazona Hiria txirrindulari lasterketa, hain justu ere. Eibartrans-Gobike taldeko Ramon J. Garcia txirrindulari elgoibartarrak sailkapen nagusiko seigarren postua lortu zuen. Asteburu honetan Tafallan lehiatuko dira eta martxoko lehen asteburuan Gaztela Leoko itzulian.

LANA.....
Eskaerak

Pertsona nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest, orduka.
☎ 632 621 940

Arratsaldeetan eta astebukaeretan pertsona nagusiak eta umeak zaintzeko prest. Orduka. ☎ 612 423 242

Orduka, gauzez eta asteburuetan lan egiteko prest. ☎ 629 872 270

Orduka lan egiteko prest.
☎ 632 092 069

Gizonezkoa lan bila. Interno eta orduka aritzeko prest. ☎ 632 092 069

Interna moduan pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentziak ditut.
☎ 631 910 861

Ospitalean pertsona nagusiak zaintzen, garbiketa lanetan eta umeak zaintzen lan egiteko prest. ☎ 666 197 831

Arratsaldez pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 646 821 678

Esperientziadun mutila adin nagusiko pertsonak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ 686 077 316

Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Prestakuntza eta esperientzia handia ditut. Gauak pasatzeko prest.
☎ 671 989 434

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. 10 urteko esperientzia eta geriatria laguntzaile titulua. Ospitaleetan eta interna aritzeko prest. ☎ 697 754 174

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Interna moduan.
☎ 634 709 366

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Orduka, asteburuetan zein gauzez. (Vania Suarez).
☎ 632 229 972

Neska arduratsua adinekoak zaintzen edo etxe garbiketan lan egiteko prest.
☎ 632 877 170/631 919 766

Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest. Egunez zein interno.
☎ 628 529 252

Neska prest adinekoak edo umeak zaintzeko zein garbiketa lanetarako.
☎ 642 248 448

Haurrak edo pertsona nagusiak zaintzen, portalak garbitzen edo sukaldean laguntzen egingo nuke lan.
☎ 602 047 812

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 653 160 233

Adinekoak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. ☎ 631 887 341

Emakumea lanerako prest. Etxebizitza edo atarien garbiketan zein umeak zaintzen. ☎ 627 819 217

Emakumea lanerako prest. Garbiketa lanetan orduka edo adinekoen zaintzan orduka, egun erdiz zein asteburuetan.
☎ 652 668 877

Eskaintzak

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira El-goibarko taberna batean lan egiteko. Esperientzia izatea beharrezkoa. Interesdunek bidali dezatela curriculuma e-posta helbide honetara: tabernalan@gmail.com

Pertsona bat behar da, goizez, bi ume zaintzeko.
☎ 660 504 445

ETXEBIZITZAK.....

Etxebizitza hartuko nuke alokairuan El-goibarren.
☎ 629 872 270

Etxea alokagai Santa Klaran. Bederatzi garen solairu batean dago. Hiru logela, berogailu zentrala eta terraza handia ditu. 550 euro.
☎ 692 692 934

Lau gelako etxebizitza alokagai da El-goibarko erdigunean, San Inazio kalean. ☎ 615 781 629

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokagai Arregitorren.
☎ 943 742 211

BESTELAKOAK.....

Inauterietako zapatuko afarian, Gure Bide elkarteak, emakume batek jantzigiti txanodun txamarra berde bat hartu eta txano gabeko beste bat utzi zuen. Trukea egin zuenari eskatu nahi diogu elkarteak norbaitekin kontaktuan jartzeko eta aldaketa egiteko.

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:
Etxebizitzak, garaieak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



administradores
Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Euzkoaldea Bideko Administrazioak
Ikeraketa Ekonomikoa

ROSA M^a PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zombakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Gure komunitatean eraiki zuten tximinia 30 urtez erabili gabe eta mantentze-lanik egin gabe dago. Etxe jabe batek eskatu du aztertze, garbitze eta baldintzarik onenetan mantentzeko. Jakin nahi nuke ea tximiniaren mantenua egitera behartuta gauden, erabiltzen ez bada ere.

Komunitate bateko tximiniaren zaintza eta mantenua bizigarritasun baldintzak betetzei dagozkio. Beraz, komunitatea derrigor-tuta dago eraikina, honen zerbitzuak eta guztien instalazioak egoera onean mantentzeko lanak eta obrak egitera. Honen baitan leudeke segurtasuna, bizigarritasuna eta irisgarritasuna asebetetzeko lan orokorrak. Baita ere baldintza apaingarriak edo administrazioak mantenuari buruz ezarritako legezko baldintzak.

Tximinia, erabili ez arren, kendu ez bada, komunitateak mantendu egin behar du. Hori edozein etxejabek eskatu dezake. Beraz, komunitateak kontserbazio lanak egin beharko dituzte etxejaberen batek eskatuz gero, legez kentzen ez badute behintzat.

Aholkua: Komunitateak tximinia zerbitzua kendu nahi izango balu, gaia, etxejabeen batzarrean aztertu beharko litzateke eta legezko gehiengoaren bidez adostu.

Enpresa kolaboratzailea: **NORFO** P. M. Urruzuno kalea, 6 - Elgoibar




Argazkiak eguzten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Gure printzesa **Dunari**, aitiitta, amama eta aitarren partetik zorionak zure 11. urtebetzean. Muxuak.



Zorionak, **Ene-ritz**, gaur 8 urte bete dituzulako. Ondo pasa eta muxu handi bat, familiakoen partetik.



Zorionak, **Hodei**, txapeldun! Gaur 3 urte. Oso ondo pasa, etxekoan, eta bereziki, Nahiaren partetik.



Zorionak, **Mikel**, bihar 10 urte, txapeldun! Muxu handi bat familiakoen, eta bereziki, Alexen eta Luciaren partetik.



Zorionak, **Ibai**, astelehenean 4 urte! Muxu handi bat etxekoan, bereziki Jare, Aratz, Ane, Naia eta anaia Lierren partetik.



Zorionak, **Gorka**, 9 kantela asko dira! Besarkada handiak familiaren eta Noaren partetik, patxito eta puzkerak.



Zorionak, **Lier**, otsailaren 28an 2 urte beteko dituzulako. Patxo potolo bat familia osoaren partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

Argazkiak eguzten eguerdia (12:00etarako) baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.

PINTURA ETA DEKORAZIOA
CORDON VILARCHAO
cordonvilarchao@telefonica.net
 San Roke, 7 - Olasope, 18, Pab. 25-26
943 740 570 / 636 98 61 62

Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean
943 744 112
 Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
 optika audio
BIGARREN
LENTE
PAREA DOAN
VARILUX SOLUTIONS
 Sartu www.varilux.es web gunean eta deskargatu 50 €ko balea, Varilux Transition betaurreko progresiboetan deskontua erabili ahal izateko.
 Sustapen ez metagarrria eta denbora mugatukoa.

23 BARIKAKUA

20:30 Antzerkia: *The Primitives*. Primita Bros eta Yllana. Herriko Antzokian.

24 ZAPATUA

Goizez, Hilabete amaierako feria.

25 DOMEKA

12:30 Kontzertua: Udal Musika Banda. Herriko Antzokian.
Obertura (E. Moreno)
Buffalo dances (Robert W. Smith)
Gitanillo de Triana (J. Franco)
El hombre esponja (F. Velazquez)
1405/Incendio de Berna (M. Bürki)

27 MARTITZENA

18:00-20:00 Literatura tailerra: Teresa. Rosa Charel. Gotzon Garate Udal Liburutegian. Antolatzailea: Haizea.

2 BARIKAKUA

19:30 Dokumentala: *Oroimina loretan. 30 urte deserrian. Kaxa hutsak* proiektua. Musika Eskolako auditoriumean.

Zinea (Herriko antzokian)

'Los archivos del pentagono'

24 Zapatua 19:00/22:15 (VOS)
 25 Domeka, 19:00
 26 Astelehena, 21:30



'Yo Kai watch'

25 Domeka, 16:30



'Julia Ist'


(Ongarri Zine Kluba)
 1 Eguena, 21:30



I. URTEURRENA

Maria Isabel Gorrotxategi Ezeiza

2017ko otsailaren 25ean hil zen, 68 urte zituela.
 Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da,
 domekan, otsailaren 25ean, 12:30ean Mendaroko Garagartzako elizan.
 Joango zaretenoi aldez aurretik eskerrak.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK							
Egunez: 09:00-20:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)			
23 BARIXAKUA	24 ZAPATUA	25 DOMEKA	26 ASTELEHENA	27 MARTITZENA	28 EGUAZTENA	29 EGUENA	30 BARIXAKUA
Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez Etxeberria	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea
Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Etxeberria	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego	Iluntzean Barrenetxea

* Fernandez:
Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

* Ibañez:
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

* Oruesagasti:
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
La Fuente - Sostoa kalea, 10 (Eibar)
943 254 410



ETORKIZUNA
ERAIKIZ

Gipuzkoaren etorkizuna
guztion ardura da. Eraiki
dezagun guztion artean.
Aurrea hartzea da
horretarako modu
hoberena.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa





ETORKIZUNA
ERAIKIZ
El futuro de Gipuzkoa

gipuzkoa.eus/etorkizunaeraikiz



Futbolak zeresan handia ematen du batean eta bestean, eta are gehiago hemen eta orain C.D. Elgoibarrek 100 urte bete dituenean. Urte asko dira argazki hau atera zutela, eta gaur egun bizi diren argazkiko lagunak ez dira Mintxetara partidak ikustera joaten, baina gogoan dituzte orduan jokalariei emandako animoak. Lagun talde horretako Tere Alberdik esan digunez, orduan, eibartarrek ez zuten futbol zelairik eta Elgoibarrera etortzen ziren partidak jokatzera. Hortaz, astero izaten zuten Lerunen partidak ikusteko aukera. Baina Lerungo zelaira ezezik herritik kanpo jokatzeko ziren norgehiagoketan ere oihuka aritzen ziren jokariak animatzen. Trenz edo kamioian egiten zuten noizean behin bidaia, besteak beste Zarautzera, Bergarara, Arrasatera... Itziar Kondek utzitako argazkian, aurreko ilaran daude neska elgoibartarrak eserita. Atzekoak beste ekipoko zaleak izango zirela uste du berak.

Ezkerretik eskumara: Itziar Konde, Maria Angeles Lizundia (†), Tere Alberdi, Itziar Ajuria, Kontxita Armendia (†) eta Pakita Opakua (†).

II. URTEURRENA

M^o Dolores Iriondo Igartua

2016ko otsailaren 24an hil zen, 81 urte zituela.

Haren oroimenez II. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 24an, 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian. Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.



III. URTEURRENA

*Ander
Modamio Alvarez*

2015eko urtarrilaren 30an hil zen,
49 urte zituela



*Gurutze
Modamio Alvarez*

2015eko otsailaren 20an hil zen,
54 urte zituela



*Maitasuna ez da inoiz itzaltzen,
eta inoiz itzaltzen ez delako,
bihotzean zaituztet.*

Ama

III. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailaren 24an,
19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren eliz-parrokian.
Joango zaretenoi alde zaituzte.

San Bartolome,¹

E L G O I B A R

2 eta 3 logelako
4 ETXEBIZITZA
trastelekuarekin
eta lokal
komertziala

**ERAIKUNTZA
BERRIA**

Sustatzailea

ISGAInmuebles s.a.

Kudeatzailea

gesdas
gestión de
promociones
de viviendas

Finanziatzailea


LABORAL
kutxa

Saltzailea

 **Arbeloa**
inmobiliaria

Informazioa eta Salmentak

T. 688 72 41 22

